



GOBERNANTZA, ADMINISTRAZIO
DIGITAL ETA AUTOGOBERNU SAILA
Araubide Juridikoaren
Sailburuordetza
Lege Garapen eta Arau Kontrolerako
Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE GOBERNANZA
ADMINISTRACIÓN DIGITAL Y
AUTOGOBIERNO
Viceconsejería de Régimen Jurídico
Dirección de Desarrollo Legislativo y
Control Normativo

**LEGEZKOTASUN TXOSTENA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO
ADMINISTRAZIO OROKORRAREN (HEZKUNTZA SAILA) ETA
EUSKALTZAINDIAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENAREN
GAINEKOA, EUSKARAREN ETA EUSKAL KULTURAREN
SORKUNTZARAKO, SUSTAPENERAKO, GARAPENERAKO ETA
ZABALKUNDERAKO PROPOSATZEN DIREN EGITASMOEN GAI NEAN
GAUZATUKO DENA.**

**79/2025 LT – LGAKZ
NBNC_CCO_5751/25_08**

I. SARRERA

Hezkuntza saileko Euskararen eta Hizkuntzen Ikaskuntzarako Institutuak Lege Garapen eta Arau Kontrolerako Zuzendaritzari Legezketasun-txostena emateko eskatu egin dio, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren (Hezkuntza saila) eta Euskaltzaindiaren arteko lankidetzaz hitzarmenaren ziri borroari dagokionez, euskararen eta euskal kulturaren sorkuntzarako, sustapenerako, garapenerako eta zabalkunderako proposatzen diren egitasmoen gainean gauzatu dena.

Txosten-eskaerarekin batera, honako agiri hauek dira administrazio-espeditentean:

- Hitzarmen-proiektua.
- Lankidetzaz hitzarmenaren proposamenari buruzko justifikazio-memoria.
- Hezkuntza saileko txosten juridikoa.

Txosten hau honako artikulua hauek xedatutakoaren arabera ematen da:

-Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoa Antolatzeke 2ko 7/2016 Legearen 5.1.b) artikulua (Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridiko Nagusiari dagokio egin beharreko txosten juridikoa egitea Eusko Jaurlaritzak sinatzen dituen akordio edo hitzarmen proiektuen inguruan, erregelamenduz zehaztutako kasuetan);

-Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoari buruzko apirilaren 25eko 144/2017 Dekretuaren 13.1 artikulua (Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridiko Nagusiak nahitaezko legezketasun-txostena egin behar du Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren organismo autonomoek edo erakunde instituzionalek beste administrazio publiko batzuekin eta horiei lotuta edo horien mende dauden zuzenbide publikoko erakundeekin izenpetu behar dituzte hitzarmen-proiektuen inguruan);

Donostia - San Sebastian, 1 – 01010 VITORIA-GASTEIZ
tef. 945 01 86 30 – Fax 945 01 87 03



- Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorreko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuaren 9.1.i) artikulua, (Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoa eta, oro har, legezketasunaren barne-kontrola eta aholkularitza juridiko orokorreko eginkizunak betetzea).

-eta Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen urriaren 29ko 317/2024 Dekretuaren 14.1.a) artikulua, (Lege Garapen eta Arau Kontrolerako Zuzendaritzak, Sailek eta erakunde autonomoek hala eskatzen dutenean, haien eskumenekoak diren arazoei buruzko irizpenak edo txosten juridikoak lantzeko eskumena ere badu).

II. AURREKARIAK

Memoriak egungo hitzarmen proiektua Eusko Jaurlaritzak eta Euskaltzaindiak orain arte izan duten lankidetzari jarraitutasuna emateko eta indartzeko asmoan oinarritzen dela azaltzen du, 2018ko uztailaren 11n izenpetu zuten lankidetzahitzarmenaren¹ ildotik, hau da, erakundeen arteko koordinazioa eta elkarlana sustatzeko zena.

Memoriaren abiapuntua Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 6. artikulua da, hau da, euskarari Euskal Herriko hizkuntza ofizialaren izaera aitortzen diona, eta bereziki artikulua horren 4. atala, euskarari dagokionez Euskaltzaindia erakunde aholku-emaile ofiziala dela diona.

Bestalde, Memoriak uztartzen du hezkuntza arloko eskumena Euskararen erabilera normalizatzeko oinarritzko 10/1982 Legearekin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzaren 17/2023 Legearekin, Hezkuntza sailari haiek garatzea dagokiola dionean: *“besteak beste, euskararen normalizazioa ahalbidetzeko askotariko programen eta jardueren bitartez, irakasleen euskalduntze eta alfabetatzearen, euskara-maila egiaztatzen duen hizkuntza eskakizunen, ikasmaterialgintzaren, euskararen erabilera areagotzeko egitasmoen zein jakite-mailaren bilakaera aztertzeke ikerketen bitartez”*.

Saileko txosten juridikoak Euskal Autonomia Erkidegoaren Autonomia Estatutuko 16.artikuluak ezartzen duen hezkuntza arloko eskumen eskusiboa aipatzen du, eta azaltzen du Euskararen eta Hizkuntzen Ikaskuntzarako Institutua 17/2023 Hezkuntzaren Legean sortua dela, eta Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 19ko 381/2024 Dekretuaren 3. artikuluan aipatzen dela.

Era berean, txostenak dio Euskararen eta Hizkuntzen Ikaskuntzarako Institutua euskara ardatz nagusi duen hezkuntza-sistema eleanitza garatzeko helburuari laguntzeko entitate espezializatu modura aritzen dela, hizkuntzen ikaskuntza ikuspegi pedagogiko, kultural eta sozialetik bultzatzeko, ikastetxe bakoitzaren errealitate soziolinguistikora egokituta.

¹ Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren eta Euskaltzaindiaren arteko koordinazioa eta lankidetzareagotzeko oinarriak jasotzen dituen Hitzarmena ([20/2018 LGAKZ](#) Legezketasun-txostena.)

Zehazki, Hezkuntzaren 17/2023 Legearen 1. artikuluan definitzen da eta 90.artikuluan autonomia funtzionala duen organo gisa ezartzen da, sailari atxikita dena, bere helburu orokorra jasotzen du “(...) *hizkuntza-metodologiak lantzea eta irakasleak prestatzea, haien jarrera, aurrerapena eta hizkuntza-inplikazioa indartzeko asmoz, hezkuntza-sistemak testuinguru bakoitzean dituen eskakizunen arabera (...) Institutuak bere gain hartuko ditu hezkuntzaren arloko eskumena duen saileko Euskara Zerbitzuak sortu zenetik bete izan dituen eginkizunak*”) eta osaera eta egikizunak dekretuaren bidez garatzeko direla ere badio.

Saileko txosten juridikoak Euskaltzaindia erakundearen izaera juridiko-publikoa dela aipatzen du, (573/1976 Dekretua, haren Estatutuak barne dituela).

Hitzarmenaren oinarria, beraz, alde batetik, 17/2023 Hezkuntzaren Legearen 90.artikuluan eta Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 19ko 381/2024 Dekretuaren 3. artikuluan datza, Euskararen eta Hizkuntzen Ikaskuntzarako Institutuak bereganatu dituen eginkizunetan, eta bestetik, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 6.4 artikulua Euskaltzaindiari emandako erakunde aholku-emaile ofiziala izaeran eta erakundearen izaera juridiko-publikoan.

Horiek horrela, txosten honen xedea den erakunde bien arteko hitzarmenak haien lankidetzan finkatzen du, euskararen hizkuntzari dagokionez (euskara-maila, erabilera, arauak, gizarteratzea, eragileen prestakuntza), alde bietako konpromisuak eta ekarpenak ezarrita.

III. LEGEZKOTASUNA

1: Hitzarmenaren xedea

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren (Hezkuntza Saileko Euskararen eta Hizkuntzen Ikaskuntzarako Institutua hartan kokatzen delako) eta Euskaltzaindiaren arteko Hitzarmenak duen xedea bien arteko lankidetzan da, hizkuntzaren erabilera zuzenerako eta bere sustapenerako hainbat arlotan, hitzarmenean zehar zehazten direnak (hezkuntza saileko eginkizunetan hizkuntza irizpideak jarraitzeko eta zabaltzeko, materialak sortzeko lantaldeak eratzeko, Hezkuntza saileko ekoizpena Euskararen Erreferentziazko Corpusean sartzeko, egitasmoetan elkarri ekarpenak egiteko, kontsulta tresnak bideratzeko, besteak beste).

Hezkuntza sailak bidali dituen Memorian eta txosten juridikoan azaltzen denez, hitzarmena, oro har, irakasleen prestakuntza, eskola-materialen garapena eta hezkuntza-sistemaren normalizazio linguistikoa euskararen erakunde aholkulari ofizialaren laguntzarekin eta kalitatez burutzeko da.

Horren bidez Hezkuntza sailak Euskal Autonomia Erkidegoaren Autonomia Estatutuko (3/1979 Lege Organikoa) 16.artikuluak irakaskuntza arloan jasotzen dituen eskumenak egikaritzen ditu, bereziki, 17/2023 Hezkuntza Legearen 1. eta 90.artikuluetan azaltzen den Euskararen eta Hizkuntzen Ikaskuntzarako Institutuak dituenak (hizkuntza-metodologiak lantzea, irakasleak prestatzea,

haien jarrera, aurrerapena eta hizkuntza-inplikazioa indartzeko, hezkuntza-sistemak testuinguru bakoitzean dituen eskakizunen arabera eta euskararen erabilera aktiboa sustatzea) eta, era berean, Institutu horrek Hezkuntza Sailaren antolaketa definitzen duen 381/2024 Dekretuaren 3. eta 4. artikuluetan ezartzen zaizkien zereginak aurrera eramanez.

Beraz, ez da zalantzarik hitzarmenaren objektuaren legezkotasunari buruz.

2.- Hitzarmenaren izaera juridikoa.

Hezkuntza sailak bidali duen Memoriak hitzarmenak eduki ekonomikorik ez daukala dio. Txosten juridikoak ez du hitzarmenaren izaera aztertzen, baina Hitzarmenak berak, hamahirugarren xedapenean, izaera administratiboa duela dio.

Hitzarmenean lankidetzaren esparruak ezartzen dira, hezkuntza sistemak behar dituen hizkuntza betebeharrei erantzuteko, kontraprestazio ekonomikorik gabe. Beraz, interes publikoa duen helburu bateratua lortzeko lankidetzaren da hemen ematen dena, kontratu izaera barik eta, hortaz, hitzarmen izaera du, urriaren 1eko Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko 40/2015 Legaren 47.1. artikuluen arabera:

Artikulu bereko bigarren a) atalean ezartzen denez, administrazio arteko izaera ere badu:

“47. artikulua. Definizioa eta hitzarmen motak.

1. Hitzarmenak dira administrazio publikoek, erakunde publikoek eta lotutako edo mendeko zuzenbide publikoko entitateek eta unibertsitate publikoek beren artean edo zuzenbide pribatuko subjektuekin sinatzen dituzten akordioak. Akordio horiek ondorio juridikoak dituzte, eta xede komun bat lortzeko sinatzen dira.(...)

Hitzarmenen xedea ezin da izan kontratuen berezko prestazioak ematea (...)

2. Administrazio publikoek, erakunde publikoek eta lotutako edo mendeko zuzenbide publikoko entitateek eta unibertsitate publikoek sinatzen dituzten hitzarmenak honako mota hauetariko batekoak izango dira:

a) Administrazio publiko biren edo gehiagoren artean sinatutako administrazio arteko hitzarmenak, edo administrazio publiko diferenteetako erakunde publiko eta lotutako edo mendeko zuzenbide publikoko entitate biren edo gehiagoren artean sinatutakoak. Hitzarmen horien barnean bildu ahalko da beste administrazio publiko, erakunde publiko edo lotutako edo mendeko zuzenbide publikoko entitate baten bitarteko, zerbitzu eta baliabideak erabiltzea, eskumen propioak edo eskuordetzan emandakoak baliatzeko.

Maiatzaren 12ko Euskal Sektore Publikoaren 3/2022 Legeak, 33.1.artikuluaren, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorak lankidetzaren hitzarmenak sinatzeko duen administrazio-ahala ezartzen du. Eta apirilaren 5eko Eusko

Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoaren 144/2017 Dekretuak, bere 54.1.artikuluak, hitzarmenak honela zehazten ditu: *“hitzarmenak dira administrazio publikoek, organismo publikoek eta zuzenbide publikoko entitateek, edo haiei loturikoek edo haien mendekoek, edo unibertsitate publikoek egin eta ondorio juridikoak dituzten akordioak, euren artean egindakoak zein zuzenbide pribatuko subjektuekin egindakoak helburu komun baterako”*.

Beraz, ez dago lege arazorik hitzarmenaren izaerari buruz.

3. Eskumena

Hitzarmena sinatzeko parte-hartzaileen legezko gaitasunaz eta eskumenaz, Lankidetzeta-hitzarmenaren Hitzaurreko 1. atalean honela jasota dator: *“Euskal Autonomia Erkidegoan indarrean dagoen lege-esparrua, bi aldeei hitzarmen hau sinatzeko eta haren garapenerako zeinahi ekimen osagarri bultzatzeko gaitasuna ematen diena”*.

Ez dago (eta komeniko litzateke egotea) arau zehatzen aipamenik.

Halere, maiatzaren 12ko Euskal Sektore Publikoaren 3/2022, Legearen 33.1.artikuluak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrerako jasotzen da:

“ 1. Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorrak elkarlanerako hitzarmenak sinatu ahal izango ditu gainerako administrazio publikoekin, nork bere eskumen-esparruan jokatzuz. (...)”

Bestalde, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntzako sailburuari dagokionez, Hezkuntza Sailaren antolaketa ezartzen duen 381/2024 Dekretuaren 4.artikuluak:

(...) Sailburuari dagokio, halaber, sailaren berezko arloetan hitzarmenatarako eta akordioatarako baimena ematea eta horiek sinatzea, baldin eta horretarako Gobernu Kontseiluaren alde aurretiko baimena behar ez bada, eta, betiere, hitzarmen eta akordio horiek beste organo batzuei berariaz esleitzen ez bazaizkio (...)

Ahalmen hori, Euskaltzaindiaren kasuan, 573/1976 Dekretuan jasotako Estatutuen 9. artikuluan ezartzen da.

Parte hartzen duten erakundeei dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak hezkuntza eskumena du, Autonomia Estatutuaren 16.artikuluaren arabera, eta Euskaltzaindiak, 573/1976 Dekretuan jasotako Estatutuen 1. artikuluen arabera.

4. Edukia

Hitzarmenaren egitura honako hau da: hamar puntuko Hitzaurrea eta hamahiru xedapen.

Maiatzaren 12ko Euskal Sektore Publikoaren 3/2022 Legeak, bere 33. artikuluan, lankidetzaz hitzarmenak arautzen ditu eta, beste batzuen artean, 4. puntuan haien edukia zehazten du:

“4. Hitzarmen-agiriekin honako hauek zehaztu beharko dituzte, hala dagokionean:

a) Zer organok sinatzen duten hitzarmena, eta zein gaitasun juridikoz diharduen alderdi bakoitzak.

b) Zein den administrazio bakoitzaren eskumena.

c) Nola finantzatzen den hitzarmena.

d) Zer jarduketak adostu diren.

e) Organizazio pertsonifikaturik behar den ala ez hitzarmena kudeatzeko.

f) Zein den hitzarmenaren indarraldia, eta aukerarik badagoen hura luzatzeko; aukerarik badago, zein den hitzarmena luzatzeko araubidea.

g) Hitzarmena azkentzea indarraldiaren amaiera ez den arrazoi bat dela kausa eta, azkenduz gero, indarrean dauden jarduketak ebazteko modua.

5.– Hitzarmen horietan, hitzarmena zaintzeko eta kontrolatzeko organo mistoak sortu ahal izango dira elkarlanerako hitzarmenak interpretatzerakoan eta betetzerakoan azal daitezkeen arazoak ebazteko.

6.– Indarrean dagoen hitzarmenen erregistroan eta hitzarmenetan parte hartzen duten organoen web-orrietan argitaratuko dira elkarlanerako hitzarmenak, iraunkortasunez eta irisgarri, horien berri emateko..”

Horrenbestez, a) eta b) atalei dagokionez, esan den moduan, gaitasun juridikoa eta bakoitzaren eskumena era orokorrean ezartzen da, eta hitzarmenean hori zehaztu beharko litzateke.

Hitzarmeneko xedapenei buruz, d) eta f) betetzen dira, eta baita 5. puntua ere:

-jarduketak, lehen zazpi xedapenetan direnak (hezkuntza saileko eginkizunetan hizkuntza irizpideak jarraitzea eta zabaltzea; materialak sortzeko lantaldeak eratzea; Hezkuntza saileko ekoizpena Euskararen Erreferentziazko Corpusean sartzea; zerrendatzen eta azaltzen diren egitasmoetan elkarri ekarpenak egitea; kontsulta eta iradokizun tresnak bideratzea; hutsuneak eta beharrak jakinaraztea).

-aldean konpromisoa, zortzigarren xedapenean, egoitza (fisikoa nahiz azpiegitura) diru ordainik gabe erabiltzeko aukera elkarri eskaintzeko adosten dituzten ekintzetan baliatzeko.

-jarraipen eta kontrola, bederatzigarren xedapenean, Jarraipen Batzordea ezarriz, (erakunde bakoitzetik kide bina izango dituen, idazkari batekin, eta urtean bitan batuko dena). Horrez gain, gure ustez, dena dela, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko 40/2015 Legearen 17. artikulua kide anitzeko organoei buruz dituen xedapenak kontuan hartu beharko lirateke, idazkariaren zeregina eta berdinketa kasuan nola aritzeko zehazteko.

-aldaketak, hamaikagarren xedapenean, bi aldean aho-bateko erabakiz emango dena.

-hitzarmenaren indarraldia, hamabigarren xedapenean, lau urterako aurreikusten da, eta epe hori igarotakoan, aukeran gehienez beste lau urterako luzatu, ala azkendu ahal dena. Hau bat dator Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko 40/2015 Legearen 49.h)1. artikuluekin.

Ez da g) puntuan aipatzen den edukia jasotzen. Izan ere, ez da aurreikusten indarraldiaren amaiera ez den arrazoi beste bat indarraldi hori azkentzeko kausa gisa, ez eta, azkenduz gero, indarrean dauden jarduketak ebazteko modua zein den esaten ere ez. Eduki hau Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko 40/2015 Legearen 51. eta 52.3. artikuluek aipatzen dute ere. Hala ere, ulertu behar dugu eduki hori bakarrik eskatzen dela kasu hori emango balitz, eta jasotzen ez bada, ondorioa litzateke isiltasun horrekin kasu hori baztertu egiten dela.

e) puntuari dagokionez, ez da zehazten organizazio pertsonifikaturik behar den ala ez hitzarmena kudeatzeko. Behar ez balitz, komenigarria litzateke hori zehaztea. Bestalde, Saileko Memorian eta Txosten juridikoan Euskararen eta Hizkuntzen Ikaskuntzarako Institutua aipatzen da, baina hitzarmenean Hezkuntza sailaz eta Euskaltzaindiaz hitz egiten da, era orokorrean. Horiek kudeatuko badute zuzenean, eta modu mankomunatu ala solidario baten, hori horrela zehaztea komeniko litzateke.

5. Izapidetza

Bestalde, hitzarmen proiektua egiteko eta izapidetzeko arauei dagokionez, apirilaren 5eko Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoaren 144/2017 Dekretuak bere 55.1.b) artikuluan ezartzen dena jarraitu beharko da, hau da, erakunde publikoak diren heinean hitzarmenaren sinaduraren onarpena Gobernu Kontseiluari dagokiola.

IV. ONDORIOAK

Azaldu den guztia dela eta, sinatzen duenaren iritziz, txostenaren edukian diren oharak aintzat hartuta eta behin zuzenduta, aldeko txostena emango lioke Hitzarmen proiektuari; izan ere, indarrean den legediarekin bat letorke.

Hau da, beraz, egin dudana txostena, eta zuzenbidean hobeto oinarritutako beste edozein baten menpe jartzen dudana.